

GIPUZKOA

«Urtero esaten dute sagardo ona datorrela, baina aurtengoa benetan da ona»

Andoni Aizpuruk eta Ana Urrutiak eman diote hasieran Hernaniko txotx denboraldiari

J.F.M. HERNANI

11 enero 2015
18:18

Ana Urrutia eta Andoni Aizpuru EITBeko Eguraldia saioko aurkezleek eman diote hasiera txotx denboraldiari Hernanin, Gudarien plazan egin den irekiera festa jendetsuan, eta lehenengo tragoen ostean egin duten balorazioaren arabera, sagardo berria "oso-oso ona" dator aurtengoa.

"Sagardogileek horixe bera esaten dute urtero, baina hau behintzat oso ona dago", zioen Aizpuruk.

Giro ederrean eta jende askoren parte-hartzearekin burutu da igande eguerdian Hernanin irekiera-ekitaldia (asteazkenean Astigarragaren txanda iritxiko da, 'Loreak' filmeko taldearekin), eguraldi euritsuak gehiegi lagundu ez badu ere. Urrutiak berak halaxe aurreratu zuen duela egun batzuk: "Eguraldi-gizon eta emakumeak ekitaldiren batera gonbidatzen gaituztenean, ez dugu zorte handirik izaten eguraldiarekin".

Hernaniko hamaika sagardogilek parte hartu dute ekitaldian, baita herriko alkate Luis Intxauspek ere. Guztira 400 litro sagardo banatu dira.

Gipuzkoan 12 bat milioi litro sagardo egin dira denboraldi berri honetan. Aurreko urteetako kopuru beretsua da. Ekoizpenaren erdia -edo piska bat gutxiago- egin omen da bertako sagarrarekin.



FOTOS

FOTOGALERÍA

Ana Urrutia eta Andoni Aizpuru EITBeko Eguraldia saioko aurkezleek eman diote hasiera txotx denboraldiari Hernanin. / JUANFER



iUn 60% menos con Direct!

Ven a Direct y consigue un 60% de ahorro en el seguro de tu coche.
www.directseguros.es



iVuela en 2015!

Reserva vuelos al mejor precio con Iberia Express
www.iberiaexpress.com